

**JOSE ANGEL IRIBAR KORTAJARENA:
EUSKERA ETA KIROLA
GOGO-BIHOTZETAN¹**

Umetako idoloak

Umezaro gazi-gozoan, nork bere idoloak izan ohi ditu. Guk geuk bi izan genduzan txikerretan: txirrindularitzan, Patxi Gabika ispasterterra; eta, futbolean, Jose Angel Iribar zarauzta bizkairatua. Biak euskaldun-euskaldunak, biak kirolari eredu-garriak. Gu, garai haretan, Bilboko Basurtu auzoko Luis Briñas kalean bizi ginan, eta Garellano futbol-zelai zaharrean –gaur Termibus geltokia dana– ospatu genduan Gabikaren garaipena Espainiako itzulian. Kale berean, San Mames zaharreko “General”-eko harmailetatik hamaikatu aldiz ikusi genduan baltzez jantzitako atezain tantaia Athletic mitikoaren atean: baltzuetan hegazti, besteetan narrasti; beti adi, beti hatan, beti lerdan, beti txairo...

Zelaira joateko zoririk ez genduanetan, etxeko sukaldean ikusten genduan gure aita “Carrusel Deportivo” entzuten irrati zaharrean. Irratsaio horretan, “Anís La Asturiana: su presencia siempre agrada” eta tipo horretako iragarkiak entzuten ziran sarri, Juan de Toro izeneko esatari espainiar batek esanda. Eta

¹ Berbaldu hau Mendebalde Kultura Alkartek Jose Angel Iribar Kortajarenari egindako omenaldian irakurria dozue. Omenaldia “Gogoa kirolean” (Bilbo, 2013/05/03-04) izeneko Jardunaldien amaieran burutu zan. Eskerrik beroenak emon gura deusadaz Jacinto Iturbe lagunari, berak irakurri zitualako omenezko berbok aitaturiko omenaldian.

batzuetan, zera be entzuten genduan *Carrusel* horretan: “El Atlético de Bilbao hoy, como de costumbre, ha sido Iribar y diez más”. Eta hori ez jakon bape gustetan gure aita zanari: “*Besteak ez dere olgetan, alá?*”, esango eban harek purrustada baten, bai Athletic, bai Iribar, bitzuak eukazan-eta bihotzaren zolan sendo be sendo sustraituta. Gurean, Iribarren hurrengo –batez be gure aitak–, Orue laterala maite genduan; eta, hori dala-eta, pozgarria izan da oso *Iribar irudia eta eredia* liburu barrian, Jose Angelek dinoan honako hau: “Jose Mari Orue, Atheticeko kapitaina, niretzat gizon eta jokalaria eredugarria”. Eredua bere ereduatariko bat erakutsi deusku.



Pedro M. Goikoetxeak iaz (2012) argitaraturiko liburua.

Hiru partidu gogoangarri

Baina, gatozen aitagaz “Carrusel Deportivo” entzuten eban umearen gazarora. Trantsizio politikoa hasikinetan dago, eta 1976ko abenduaren 5ean, Atotxa zaharrean, Jose Angel Iribar eta Iñazio Kortabariak ikurrina atara dabe partidu hasieran, ordurako legalizatuta egon ez arren. (*Derby* horretan, zelako gol partidea sartu euskuen, eh Jose Angel!). Egitada eder eta ausarta izan zan ordukoa, Iribarren figurea haundituarazo egin ebana... Edozelan be, nik neuk garai horretako hiru partidu daukadaz gordeta betiko nire gomutan.

Lehenengoa, 1977ko maiatzaren 18an, San Mamesen jokatu zan, Italiako Juventus taldearen kontra. Athleticen lehenengo finala Europa mailako txapelketa baten. Bueltako partidua irabazi arren (2 eta 1), ezin izan genduan UEFA txapelketa irabazi. Lur jota geratu ginan Athletic zale guztiok, baina zelaian egon ginanok, beharbada, tristeago. Honako hamaikako hau zelairatu zan orduan, Koldo Agirrerren zuzendaritzapean: Iribar; Lasa (Carlos), Eskalza, Villar; Gisasola, Alexanko; Dani, Irureta, Amorrortu, Txurruka eta Rojo I.a.

Bigarren partidua be, San Mamesen jokatu zan. Partidu gogorra hau be. 1978ko ekainaren 17an izan zan. “Bai Euskarari” ligakoa izan zan, eta Euskaltzaindiak “Erdalzale” talde indartsuaren kontra jokatu eban. Hor ez zan egon olgetarik. Jokatu egin zan: hil edo biziko. Euskaltzaindiak, Villasante adoresuaren zuzendaritzapean, honako hamaikako hau zelairatu eban: Laboa; Lete, Valverde, Urko; Amuriza, Lopategi; San Martin, Knörr, Davant, Pantxo eta Pello (partiduan zehar hainbat aldaketa egon ziran: Mendibil, Oskorri...).

Kontrarioak oso jokalari ezagunak izan ziran: sendoak, nekaezinak, zalak...; beteranoak eta gazteak nahastean. Hona, atara eben alineazinoa: Utzikeri; Autogorroto, Konpleju, Erdalzalakeri; Etxekalte, Erosokeri; Handiuste, Nagi, Euskerazer-tako, Alferrontzi eta Arinaiztar. Ha ta guzti be, irabazi egin

genduan. Baina “Bai Euskarari” liga oso liga luzea danez, ondinokarren ez dago txapeldunik. Airean dago dana.




“Bai Euskarari” jaialdiko sarrera (San Mames, 1978-06-17)

Hirugarren partidua, aurreko biak legez, San Mamesen izan zan, “Bai Euskarari” liga luzekoa hau be. Bertan, kirola eta hizkuntzea buztarturik agertu ziran, ondo buztartuta agertu be. Jose Angel Iribarrek 1979ko abenduaren 12an jokatu eban bere azken partidu ofiziala Athleticcegaz, eta 1980ko maiatzaren 31n, Athleticcek eta Euskal Herri osoak omenaldi amultsua opetsi gura izan eutsien futbol aktiboa ixten eban atezain euskaldunari, Zarautzeko Makatza baserriko seme suharrari. Pentsetakoa da, San Mames zaharreko aldagelak umezurtz geratuko zirala *aramu baltzak* botak behin betiko eskegikieran. Izan be, *Txopoa* ez zan makala!

Iribarren eskuak

Omenaldiko kartela Eduardo Txillida eskultore handiak egin eban. Litografia eder bat: esku handi bi dira, baloi bat besarkatu/gelditu gura leukienak. Besarkatu euskaltzaletasunaren baloia; gelditu erdalzalekeriarena. Jose Angel bera joan zan hernaniar eskultoreagana proposamena egiten, eta Errealeko atezain izandakoak pozarren onartu: “Gainera, sosik kobratu gabe”, Iribarrek berak dinoskunez.



Omenaldiko kartela



Omenaldirako iragarkia

Esku bi dakuskuz kartelean, baina hamaika atzamar. Izan be, hamaika dira futbol talde bateko jokalariaik. Eta marrazkia-
ren erdian agertuten jakun orkoro zut tantai antzeko hori atezaina bera dateke, gainontzeko atzamar/jokalariaik *zelai orlegi-*
rantz zabalduten diran bitartean. Era berean, *hamaika* horren esanahi ezkutuagoan, “Bai Euskarari” ligarako behar ziran / behar(ko) diran euskaltzaleak egon leitekez irudikatuta; dana beharrean dagoan hizkuntzeak guztion beharra dau-eta. Esan bakoa da, euskereak hamaikatxu euskaltzaleren laguntzea beharko dauala liga luze horretan.

Atezainaren esku metaforikoak, atezain ohi batek eginak. Izan be, Txillidak inoanez: “nire obrak euskaraz hitz egiten du”. Xabier Amurizak be, kantagai izan zituan Iribarren esku irmoak, atezaina euskerearen egunsentian kokatuaz. Azken baten, Iparra eta Hegoa lotu, eta bitzuak benetako **Euskal** Herri bihurtuteko funtsezko elementua dogu hizkuntzea:

Goizak gauri irripar,
 egunsentian Iribar,
 kirolzaleek txalokatua,
 izar haina bidar.
 Bi esku luze ta gihar,
 atxikiz Hego ta Ipar,
 Gaur banatua, Euskal Herriak
 bildu dezan bihar.

Esku luzeak, zaintsuak, sendoak, erneak...: baloiari eusteko prest; baloia ukabilagaz ate ingurutik urrunduteko ernai; baloia taldekideai pasau eta jokaldi barri bat hasteko beti pronto... Bada, Iribarrek tinkotasun beragaz eutsi eutsan euskereari, berehalakotasun berberagaz luzatu eutsazan bere esku sendoak hizkuntzeari, haren behar gorriak, zelanbait, arindutearren. Izan be, Juan M^a Lekuonak *Ilargiaren Eskolan* liburuko “Esku 3” olerkian inoskunez:

Dena –eta bizia ere bai–
 eskuek amore ematean amaitzen da.

Euskereari Bai

Omenaldirako zabaldu zan iragarkiaren esaldi nagusian: “31n denok santimami-ra / iribar-ekin batera / bai euskarari esatera”, irakurri eitekean, eta gonbidapenaren ostean, Nestor Basterretxeak aurreko urteko “Bai Euskarari” jaialdirako egitiko logo bera agertuten zan, gorago aitaturiko buztartze indartsu hori azpimarratuaz. Izan be, Iribarrek asmo sendoa eukan kirola eta euskerea lotuteko, jakin ekian-eta hizkuntzearentzat aterpe egoki eta abaro epel izan eitekeana kirola. Horretan guztian, bat egiten dau Jose Angel Iribarrek Xalbador haundiagaz:

Kirola ta hizkuntza, horra hor bi gauza
luza dezaketenak herriaren hatsa;
baldin ez bazerauku erdalduntzen plaza,
salbaturen garela badut esperantza.

Omenaldia arrakastatsua izan zan, eta zelaiko partiduan Errealak nagusitu zan arren, “Bai Euskarari” liga luzean, benetakoa irabazlea euskerea izan zan. Iribarrek zelaian bertan azpimarratu eban ideia hori, “Euskarak irabazi du” esan eban-eta.



Jose Angel Iribar bere omenaldian (San Mames, 1980-05-31)

Gastuak kendurik, hamar bat milioi pezeta lotu ziran. Joseba Intxaustik dino Athleticcek 1980ko azaroan 10.055.794 peze-ta ipini zituala UZEIren eskuetan. Dirutza hori, oso-osorik, *Kirolkidea* izeneko hiztegia argitaratuteko erabili zan, baita An-

txon Ezeizak, Koldo Izagirrek eta Javier Agirresarobek eginiko hiru filma labur egiteko be. Filmok arraunketa, mendia eta futbola izan eben ardatz. Gai ederrak, eta gazte euskaldunentzat apropos be aproposak, mendia, itsasoa eta futbola sendoro errotuta dagozalako, bai Iribarren bizitzan, baita gutariko askorengan be. Honan, zer dinoan Iribarrek berak hiztegiko “Agu-rra” izeneko berbaurrean:

Omenaldia bideratzea zela-eta, lehenengo aldiz, lankideekin bildu nintzanean, kirol-hiztegi bat egitearen ideia atera zen; eta omenaldikoan bilduko zen dirua horretarako eskaintzeari inolako duda-mударik gabe eman nion nire baietza. Egia, Euskal Herrian bada behar gehiagorik, milaka seguru aski: baina ni kirol-mundutik natorrenez, oso egoki iruditu zitzaidan kirolari aportazio hau egitea.



Kirolkidea hiztegia 1982. urtean argitaratu zan.

Omenaldiaren hurrengo egunetan ugariak izan ziran Jose Angel Iribarrek egindakoaren inguruko laudorioak eta goraipamenak. Izan be, ez da ohikoa izan ekimen kulturalen alde holako diru-dohaintzak egitea; eta, nekezago, dirua bere poltsikotik jarten dauana pertsona bakar bat danean. *Txepetxak* [Jose Ramon Etxebarria] *Anaitasuna* aldizkariko orrialdeetatik ozen be ozen goraipatu eban Jose Angelen erabagia (“Iribarri, esker onez” bertso-sortatik ahapaldi bi aukeratu doguz):

Hogetamar bat mila izan ziren
han egondako lagunak.
Nola ez ginen bertara joango
adiskide euskaldunak!
Harritu gaitu atezain legez
agerturiko ihardunak,
harrituago euskararekin
eman digun erantzunak.

Zertan enplega ote hobeki
hango diru ugaria?
Zentzu zuzenez ikusia du
kirolaren ahuleria.
Orain artean kirol kontuan
goian erdara garbia.
Erabiltzeko izan dadila
Euskal Kirol Hiztegia!

Euskaldun eredia

Harik 25 urte garreanean, Gipuzkoako Foru Aldundiak “Urrezko Intsignia” opetsi eutsan Iribarrerri euskerea eta kirola lotuteko eginiko ahaleginak saritu guran. Bertan esandako omenezko berbetan, bide beretik eragoion Joseba Intxaustik:

“Nik ezagutzen ditudanetik, erabaki eta jokabide hau bakana ez ezik, guztiz banakoa izan da, izan ere herritar soil batek, gehienbat inguru oso erdaldunean jardun behar zuenak, bere ogibidea zuen lan-munduari sakela pertsonaletik hartutako diruz euskalduntzen lagundu nahi izan zion, nahi eta egin”.

Baina dan-dana ez da dirua. Izan be, hizkuntza kontuetan, sarri askotan, jarrera pertsonala, emondako ejemplua, edota erakutsitako koherentzia askozaz be eraginkorragoak izaten dira –gizarteari begira, hatan be– dirua bera baino. Eta horretan Jose Angel Iribar eredugarria izan dogu. Mendebalde Kultur Alkartearen izenean zuregana jo nebanean be, ez dituzula gehiegi maite holako omenaldiak esan zeunstan, baina euske-
rearen onerako bazan, pozarren etorriko zinala gugana, izan zan zure erantzuna.

Aspaldi honetan gero eta sarriago entzuten dogu euskerea lako hizkuntza gitxiengotuak, aurrera egingo badabe, erreferente indartsuak behar dituela gizartean: politikan dala, unibertsitatean dala, enpresa munduan dala, kulturean dala, kirol arloan dala... Gizartean goi mailan dagozanak euskaldun moduan agertu ezkeru, gizarteak errezago joko dau euskereagana, identifikatuago sentiduko da hizkuntzeagaz.

Horreri guztiari jagokonez, esan geinke Jose Angel Iribarrek beti jakin izan dauala euskalduntasuna eta kirola lotuten, buztartuten. Gogoan daukat zer inoan Josemari Velez de Mendizabalek Eusko Ikaskuntzaren *Euskonews* aldizkari digitale-rako egin eutsun alkarrizketa mamitsuan: “Iribar: zarauztar, euskaldun, elkarrizketa hau euskaraz egitea nahiago izan duzu...”. Askok errezkeriara joko eben holako egoera baten, “Izan be, ñabardurak-eta hobeto emongo neuskizuz erderaz”, esanda. Zuk ez! Horregaitik zure omenaldiaren ingurukoak komentau eta gero, zera gehituten eban Velez de Mendizabalek: “Hor ere, Jose Angel, eredu izan zara”. *Hor be bai*, gehituko neuke nik.

Kirolkidea hiztegiaren atzetik, zorionez, beste lan asko argitaratu dira; eta, hori dala-eta, euskal lexikogintzea ez dago erkin gaur egun kirolen alorrean. Gaur normaltzat joten doguna, gatx be gatxa zan zu futboletik erretirau zinan garaian. Azken 33 urte honetan, izugarrizko aurrerakadea izan dau euskereak hedabideetako kirol-saioretan, eta, aitzindari modura, zeuk ba-bestutako hiztegi xume baizen inportantea aitatu beharra dago, ezelango dudarik barik. Langintza horretan itaurrean ibili jakun kale arteko baserritarra, azatza ederto markatuaz.



Euskereka eta kirola buztarturik

Oraintsu, iazko ekainaren bueltan, beste ekimen inportante bat egon zan futbolari eta euskereari lotuta. Izan be, *Futbola, oinarritik euskaraz* izeneko liburua aurkeztu zan Bilboko Foru Liburutegian. Asmoa futbol-entrenatzaileentzako materialak argitaratutea zan, euren beharra euskeraz be egin ahal izan dagian. Politikari eta agintariakaz batera, Koikili Lertxundi egitasmoaren bultzatzaileetarikoa, eta zeu be, Jose Angel, han izan zinien. *Bizkaie!* aldizkari digitalak honetara laburtu eban bertan zuk esandakoa:

Jose Angel Iribarrek Athleticen izenean parte hartu dau aurkezpenean. Bere esanetan, eskuliburua *aurrerapausu garrantzitsua* da, eta Athleticen *babes guztia* dauka. Taldeak, *Bai Euskarari* ziurtagiriaren bidez euskereagaz daukan konpromisoa gogoratu dau Iribarrek. *Taldearen inguruan urtero-urtero dabilzan milaka gaztetxuk euskeraz jardutea, hori be bada gure helburua.*

“Bai Euskarari” ligan jarraituten dogu, beraz, Jose Angel. Ez da amaitu liga luze hori. Partidu asko jokatu beharra daukagu oraindik. Baina zuk aitaturiko helburu horri helduten badeutsagu, hau da, ***Taldearen inguruan urtero-urtero dabilzan milaka gaztetxuk euskeraz jardutea*** lortuko bazendue, “Bai Euskarari” liga ezin garrantzitsuago hori irabazteko aukera asko izango geunke. Titulu ederra eta trofeo aparta, San Mames Barriko museorako. Eutsi helburu horri, Jose Angel! Euskaldundu Lezama, euskaldundu Athletic bera, eta San Mames Barria berez-berez hasiko da euskeraz egiten.

* * *

Omendu-zerrenda ederra dauka Mendebalde Kultura Alkar-teak, azken urteotako jardunen lekuko: hizkuntzalariak, idazleak, andereñoak, ikerleak, kultur eragileak, irakasleak, euskaltzaleak... Kate sendo eta aberats horren azken begia euskal kirolari bat da, euskerea eta kirola bihotzaren erditik maite dituana. Jose Angel, ohore handia da guretzat zu omendutea.

Jarraitu, Jose Angel, euskerearen atea jagoten, zaindu ondo ate hori, euskereak gol gehiagorik hartu ez dagian; hemendik aurrera, “Bai Euskarari” liga luzean partidurik galdu ez daigun.

Iñaki Sarriugarte Irigoien